

nafarroako escuelas landa eremuko rurales de eskolak navarra

PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA
2010-2011 ikasturtea PRESTAKUNTZA PLANA
PRESTAKUNTZA ATALA

1. Izenburua:

NAFARROAKO LANDA EREMUKO ESKOLEN I. JARDUNALDIAK

2. **Modalitatea:** Jardunaldia

3. **Etap:** Etapa artekoa

4. **Norentzat:** Gaiarekiko interesa duen irakasleriarentzat.

5. Justifikazioa:

Nafarroa osoan zehar, Landa Eremuko 70 eskolatik goiti aurki ditzakegu, 11 zonaldetan sakabanaturik. Jardunaldi hauek 3 xede nagusi dituzte, batetik Nafarroako Landa Eremuko Eskolek abian jarri dugun elkarlana ezagutzera ematea, bertzetik eskola guzti hauen arteko elkar ezagutza eta lankidetzaz bultzatzeko nahia eta azkenik, gure eskoletan nola egiten dugun lan erakusteko asmoa, hainbat maisu-maistra eta hezkuntza eragilerentzat hain ezezaguna dena, gizarteratu eta ezagutarazteko intentzioz.

6. Helburuak:

-Nafarroako Landa Eremuko Eskolak ezagutaraztea: beraien izaera, antolaketa eta bertan egiten den lana.

-Nafarroako Landa Eremuko Eskolek aintzineraren daramaten elkarlanaren berri ematea eta emanen diren hurrengo pausoak finkatzea.

-Landa Eremuko Eskoletako maisu-maistren arteko elkarlanerako zubiak eraikitzea.

-Landa Eremuko Eskoletako kideentzako eztabaidarako espazio amankomunak sortzea.

-Landa Eremuko eskoletan egiten den lana ezagutzera ematea, bertze eskoletan dauden maisu-maistrei.



7. Egitaraua:

10:00 Harrera.

10:10 Aurkezpena.

11:10 Web orriaren aurkezpena

11:45 Atsedenaldia

12:00 Komunikazioak/Tailerrak.

Txanda bakoitzean tailer batera joateko aukera izanen duzue. Aukeraketa, izena ematerakoan egingen duzue.

LEHEN TXANDA 12:00etan	Emozio hezkuntza Berrikuntza Proiektua. Igantzi-ko eskola	Euskaraz
	Kulturgintza Urdazubi-Zugarramurdi-ko eskola	Euskaraz
	La ciencia en la escuela Garralda eta Auritzberri-ko eskolak	Gaztelaniaz
	Cuentos y leyendas populares de nuestro entorno Lizarralde	Gaztelaniaz

13:00 Komunikazioak/Tailerrak

BIGARREN TXANDA 13:00etan	Emozio hezkuntza Berrikuntza Proiektua. Igantzi-ko eskola	Euskaraz
	El método de la acción cultural Urdazubi-Zugarramurdi-ko eskola	Gaztelaniaz
	Zientzia eskolan Garralda eta Auritzberri-ko eskolak	Euskaraz
	Cuentos y leyendas populares de nuestro entorno Lizarralde	Gaztelaniaz

14:00 Osoko bilera eta ebaluaketa.

14:30 Bazkaria



Komunikazio/tailerren aipamenak:

Zientzia eskolan Garralda eta Auritzberri-ko eskolak

Zientzia mundua begiratzeko modu bat da, beste begirada batez, esperimendatuz eta imaginatuz gauzak nolakoak diren eta nola funtzionatzen duten.

Gure proiektuarekin ikasleek bere ezagupen propioak eraikitzen saiatzen gara jakin-mina metodo gisa erabiliz, metodo zientifikoa.

Hizlariak: Nekane Nuño eta Arantxa Iriarte, Garralda eta Auritzberri eskoletako irakasleak

Emozio hezkuntza Berrikuntza Proiektua. Igantzi-ko eskola

Ikasleak, antsietate, beldurra edo urduritasunari aurre egiteko baliabiderik ez duenean; ikasteko, arazoei irteera emateko edo kontzeptu berriak ikasteko zailtasunak izaten ditu, ez da arreta mantentzeko gai izaten.

Ikerketa berriek diotenez, ikasketa sozial eta emozionalak landuaz, ikasleak hobetze nabarmena jasaten du bere emaitza akademikoetan.

Eskolak, alderdi kongitiboez kezkatzeaz gain (dagoeneko egiten duena) alderdi afektibo eta emozioetatik ere arduratu beharko luke, hauek baitira nortasun integrala sortzeko oinarriak.

Eta, nola egiten dugu hau landa eremuko eskola batean?

Hizlaria: Joxean Ortega, Igantziko eskolako irakasle eta zuzendaria.



KULTURGINTZA SAIAKERA. "Le crime d'Urdax"- "Urdazubiko hilketa" Urdazubi-Zugarramurdi-ko eskola

Kulturgintza izeneko ikas-metodologia A.E.K.-ko talde didaktiko nazionalak abiatu zuen 1985ean. Bere sortzaileak Julen Kaltzada, Josu Naberan, Alberto Gabikagogeaskoa eta Antonio Lekue izan ziren.

Bere filosofia hagitz argia da: eskolan edota euskaltegian ikasten den guztia Herriari itzuli behar zaio kultur ekintzen bidez.

Europako Hizkuntzen Marko Komuna aztertu genuelarik ohartu ginen mundu mailako adituak orain ari direla aurkitzen hizkuntzen metodologian Euskal Herrian duela 25 urte teorizatu zena.

Pasa den ikasturtean DBH-ko 1. eta 2. mailako ikasleekin eta LH-ko 4., 5. eta 6. mailakoekin ere film bat egin genuen, Frantsesez eta Euskaraz. Guk kontatu nahi dizuegu nola egin genuen eta zein izan zen emaitza.

Hizlariak: Fermin Sanchez eta Amaia Juaniz, Urdazubi-Zugarramurdi HIE-ko irakasleak

Cuentos y leyendas populares de nuestro entorno Antzin eta Murieta

Proiektu honen helburua, Lizarraldeko ipuin eta kondairak berreskuratzea izan zen, euskarri desberdinak erabiliz, zabaltzeko asmoz.

Denak landa eremuko eskolak izaki, sakabanatuak, unitate gutxikoak, ikasle kopuru haundiegirik gabe, eskola guztien arteko komunikazioak, baliabideen eta informazioaren trukaketak, eztabaidak eta lankidetzak ezinbesteko garrantzia hartzen du. Dударik gabe, IKTaren erabilera egoki batek, guzti hau ahalbidetuko du.

Proiektu honek honako helburu hauek zituen:

- Lizarraldeko ipuin eta kondairak berreskuratzea.
- Ikastetxeetako IKT baliabideei etekina ateratzea.
- Informazio eta komunikazio tresna desberdinen erabilera: posta eta internet.
- Sare informatikoen ustiaketa.

Hizlariak: Antonio Carmona, Murietako eskolako irakaslea.



8. Deitzaileak: Nafarroako Landa Eremuko Eskolak/ Irakasleriaren Formakuntza Atala

9. Tokia: Lekarozko ILZ

10. Iraupena: 4 ordu eta erdi

11. Eguna: Urtarrilaren 29a

12. Ordutegia: 10:00etatik 14:30ra.

13. Izena emateko epea eta helbidea: Abenduaren 10eko 14:00etatik, urtarrilaren 19ko 12:00ak arte.

Izena emateko egin klik [hemen](#)

14. Hizkuntza: Euskara eta gaztelania.

15. Oharrak:

Jardunaldiari bukaera emateko, Iruritako Olari jatetxean 20 euroren truke bazkari goxo bat izanen da. Izen emate orrian bazkarira etortzeko asmorik dagoen zehaztu beharko da.

